

SOR

KUN

TZA

BEKAK 2023

SORKUNTZA BEKAK 2022

MEMORIA

SORKUNTZA BEKAK

1- Felipe Murillo Egiguren

2- Iosu Azkue Odriozola

3- Patxi Juaristi Azkue

4- Enok Sudupe Altolagirre

5- Paula Huarte Cosin

6- Usua Martinez Maritxalar

SORKUNTZA EGONALDIAK

7- Iker Gozategi Intxauspe


8- Leire Lacunza Miranda

Felipe Murillo Egiguren

Azpeitia, 1987

IGANDEAK

Guraso izan berri den gizon baten inguruko eleberri saiakera bat da *Igandeak*. Bere semea zaintzearekin batera gaixo suertatu den aitaren zaintzari egin beharko dio aurre protagonistak. Aitatasunaren isla desberdinekin topo egingo du ondorioz eta belaunaldi arteko zaintzaren gaiari heldu beharko dio ezinbestean. Istorioaren eta honi lagunduko dion soinu bandaren bilaketa izan da azken hilabeteetako sormen prozesua eta horren guztiaren lagina da *Igandeetara bidean*-en senti dezakezuen. Aitatasunaren dimentsio sozialen azterketa bat izan da sormen bidea. Gizartearen paternalismoaren habe direnen zenbait alderdi arakatzea eta gorpuztea, deseraikitze saiakera bat tekleatzeko. Hiru narratzaile, hiru dimentsioetan uztartzeko aitzakia bat izan da Igandeak. Zati horietako bakoitzaren testu lagin bana irakurri ahalko duzue erakusketa honetan aurkeztutako liburuetan topatzen duzuen QR bakoitzean. Dimentsio intimoak arakatzeko gonbidapen bat. Gozatzeko iradokizun bat besterik ez.



Iosu Azkue Odriozola

Azpeitia, 1976


LABANDERA

Zirriborro ezberdinak sortu ostean, eskulturaren gauzatze prozesua hasten da.

Lehenengo fasea *arbastatze*ari dagokio, hau da, eskulturak bere barnean duen irudia ateratzeko egiten den harri kentze lana, zati handienak kenduz.

Bigarrena *zizelkatze* faseari dagokio, non zizelarekin irudiaren elementu guztiak ateratzen diren behar den zehaztasun guztiarekin.

Azkenik, marmolaren *leuntze* lana dator, lan gogorra eta fina, marmolari hain ezagun eta berezi duen distira ateratzen diona.



Patxi Juaristi Azkue

Azpeitia, 1985

Hormatik zuntzera

Proiektu honen helburua stencil edo txantilo teknikan inguruan aurretik jorraturiko ibilbidea serigrafiara eramatea izan da; hormetan burutzeko prestatzen nituen irudietatik, minutu gutxitan gauzatu beharreko prozesu zurrun batetik, paperera igarotzea, teknika eta euskarri hauek ezartzen dituzten aukera eta muga berriekin esperimentatuz. Honela irudi sorta ezberdinak landu ditut, euskaldunon iruditerian dauden sinbolo eta elementuak abiapuntutzat hartuta.

Erakusketan ikusgai dagoen sortak pisu handiko irudi bat du oinarri. Hortik abiatuz jorraturiko lanek, ikusle gisa neure barrenean sortu zaizkidan iskanbilak arakatzeko tartea zabaldu didate, hausnarketarako, uki daitekeenaz, ezin denaz, garaien aldaeraz, begiraden aniztasunaz; ariketa honek ikuslearengan sortu ditzakeen sentimendu eta kontraesanez, hauek eragiten duten gatazkaz.



Enok Sudupe Altolagirre

Azpeitia, 1983


Herri baten bozka-piloak

“Herri baten korapiloak. Sokamuturraren museoa” erakusketako pieza batean du oinarria bigarren honek.

“Herri galdeketa honen emaitza bostehun urtez bakarrik izango da loteslea” zioen oharrak eta herriak hitz egin du, bai. Ozenki hitz egin ere. Herriak erabaki du, bai, ondo erabaki ere. Eta herriak onartuko du, bai, galdeketa bidez adostutakoa.

Herri galdeketa **2024**

SOKAMUTURRA



BAI



EZ

OHARRAK

- Gurutze batekin eta harrotasun osoz aukeratu BAI erantzuna.
- Zure erantzuna EZekoa bada, Azkoitia ere herri polita da bizitzeko.
- Deialdia hamasei urtetik gorako sokamuturzale guztiengaz da.
- Galdeketa ren emaitza bostehun urtez bakarrik izango da loteslea.

Paula Huarte Cosin

Aoiz, 1994

Aldaxkak

Aldaxkak sorkuntza prozesuan behin eta berriz errepikatzen den ekintza baten pertzepzioan oinarritzen den proiektua da. Sarritan sormen prozesuan zehar, neregana interes berezia pizten duten zatiak, aukeraketak edo erauzketak sortzen dira, eta hauek izan ditut abiapuntu gixa.

Proiektu honetan, loturan, irudien eta objektuen segidan oinarritutako eraikuntza modu bat planteatzen dut. Normalean instintiboki gertatzen den ekintza baten garapen kontzientea. Obra baten sortze prozesuan geldialdi bat egitean datza, aldi berean beste proiektu baten jatorria bihurtzearen.

Ariketa hau kontzientea izan arren, aldeztu aurretik pentsatutakotik ihes egiten du, instintuzko ekintza batean bihurtuz. Lehenbiziko konfigurazio batetik, zati bat, keinu bat edo xehetasun bat erauzi, eta hau beste eszenatoki edo objektu bat sortzeko hurrengo abiapuntutzat hartu. Sorkuntza berri hauek berezko identitatea izatea interesatzen zait, baina beti ere jatorrizko objektuari nolabait errotuak egongo dira. Irudiak, formak eta kontzeptuak biderkatzeko joku batean datza, erreprodukzio prozesu infinitu bat.



Usua Martinez Maritxalar

Zarautz, 1995

Zikiñe ta Garbiñe, bolleren istorioak

Lan honen helburua pertsonaia finko batzuen inguruko umorezko kontakizunak egitea izan da. Komiki tira eta tebeoak izan dira erabili ditugun formatuak eta hala, bi diziplina artistiko eta kultural uztartzen saiatu gara: marrazkigintza eta literatura. Izandako erreferentzien artean, Alison Bechdelen *Dykes to Watch Out For* (1983–2008) komiki bilduma izan da nagusietako bat. Aipatutako lanak bollera komunitate baten bizipenak eta tirabirak kontatzen ditu. Estatu Batuetako testuinguruan kokatuta dago eta bertako eztabaidak eta gogoetak islatzen ditu. Funtsean, gure planteamenduak Bechdelen ikuspegi narratiboa hartu nahi izan du gidaritzat, baina guzia Euskal Herri postpandemikora ekarrita. Ezin ditugu ahaztu ere izan ditun euskal komikigintzako erreferente garrantzitsuak, besteak beste; *Ipurbeltz* (1977-2008), *Xabiroi* (2005-) eta *Tupust* (2019-), horiek ere eragin handia izan baitute gure belaunaldian



ZIKINE




Garbine




kilo



Fursego



una tv sisters
Zaintrave



Nekane

SORKUNTZA EGONALDIAK

Iker Gozategi Intxauspe

Orio, 1995


GARRASI

Jaioberriaren biriketan airearen lehen sarrera oihu baten bidez adierazten da. Behar fisiko batetik abiatzen den adierazte modu hori galduz doa bizitzak aurrera egin ahala, muturreko egoeretakako soilik mugatzen dena. Garrasiaren bilakaera eta aldaera ezberdinen ikerketa bat da proiektu hau.


Sarritan izaera negatiboa berehala egozten zaion arren garrasiak baditu emozio adina aldaera, are gehiago, oihu egiteak emozio erreprimituak askatzen laguntzen du, endorfinak askatzen ditu eta ongizate eta erlaxazio sententzioa sortzen du.

Horrela bada, ikerketa honekin kontzeptu zabal honen diziplina arteko itzulera bat osatzen nabil. Oihuka dabilen aurpegi baten itxura, laguntza eske dabilen garraxia... edonork erraz identifika ditzakeen formak direla baliatuz garrasi ezberdinen dokumentazio lan bat egitea da helburua bideo, irudi, soinu bidez gorputzaren gaitasun fisikoak baliatuta.

Kasu honetan, erakustera noan hau , proiektu zabal honen zati bat da. Ikus entzunezko pieza bat zehazki.







Leire Lacunza Miranda

Donostia, 1996

Laino zerratu bat

Proiektuaren lagin txiki bat da erakusketan aurkezten dudana pieza. Proiektuaren muina Soreasuko San Sebastian elizako Bakardadeko kaperan argi instalazio edo ikuskizun bat egitea izan da. Kaperan dauden freskoetako irudikapenetatik abiatuz eta falta diren irudi zatien inguruan hausnartuz bestelako narrazio bat eraki nahi izan dut.

Zeruaren errepresentazio katolikoa eta egungo zeruaren irudikapen ohikoena kontrajartzea izan da oinarrietako bat. Lurretik haratantz dagoenaren ideia asko aldatu da Errenazimendutik (Kapera eraiki zen garaitik) Aro Garaikidera; aintzinako zeruak jainkoek, izaki zerutiar erlijiosoek eta hildakoek habitatu dituzte, gaur egun, ordea, planetak eta izarrak imajinatzen ditugu ortzian.

Aipatzekoa da ere, proiektuaren ildo nagusietako bat Matxinsaltoen Izurritearen kontakizuna izan dela. Honek izuaren, indarrez hartzearen eta botere aldaketen inguruan hausnartzera eraman nau. Ignacio Saez de Elolaren “abenturen” eta Itun Zaharreko kontaeraren artean paralelismo bat aurkitu nuen; bi istorioek inbasioaren inguruan dihardute, toki eta kultura bat birrintzearen lekuko izanik: lehenengoa inbaditzailearen ikuspuntutik kontatuta dago, bigarrena, aldiz, biktimaren haragi bizitan jaulkita.







Azpeitia
Denontzat

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

